



adeboiloan 'ahalean, topean'	«Joseba adeboiloan ari zen, guztiz presaka.»	(35)
ager ez banendi 'agertuko ez banintz'	«Zerbait gerta balekit eta gau osoan ager ez banendi , goizean lehen orduan poliziari hots egiozu.»	(71)
ahalke 'lotsa'	«"Nire gurasoek ez dakite fitsik ere baina, ikasiko balute, hori ahalkea! Jainkoak lagun noizbait euskaldun mutil langile bat aurkituko dut...»	(20)
ahapaldi 'estrofa, poesia zatia'	«Nekeak eta desoseguak bulkatu zuten Jean Genet-en ahapaldi hura, oihu bakarti hura kartelean itsastera...»	(100)
aieruz 'keinuz'	«Egia da batzuetan aieruz mintzatu zitzaiola...»	(37)
alajaina (indargarria) 'Ez horixe / Bai horixe!'	«Ez nau kokilduko, alajaina! »	(65)
aldaroak egin 'balantzaka, alde batera eta bestera'	«Trenak aldaroak egiten zituen eta zenbaitetan argiak itzali egiten ziren. Horiek izaten ziren momentu txarrak.»	(93)
amilka 'goitik behera eroriz / arin ere arin'	«Orduak amilka joan ziren, oldean, bat bera ere galduta geldi ez zedin...»	(183)
anden 'nasa'	«110. karrikako geltokira heldu eta andenean aurrera abiatu zen irteerarantz.»	(102)
apar 'bitsa'	«Garagardo latari aparra kanporatu zitzaion irekitzean.»	(46)
apika 'agian, beharbada, ausaz'	«...bagoiaren beste aldean <i>hip-hop</i> musika eta bizi estiloko mutiko pare bat, eskolan piper egin zutenak, apika ...»	(187)
arrapostua 'erantzuna, ihardespena'	«...eta afalondoan etorkizunaz mintzatu nintzaionean zinezko arrapostua eman zidan.»	(21)
arrastatu 'arrastaka doana'	«Frenoan garrasi arrastatuek trenan heltzen ari zela adierazi zioten.»	(30)
arre 'iluna, lohitasun ugarikoa'	«...lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk, zikinune arrez beste batzuk: hotelaren gainbeheraren zantzu nabariak.»	(14)
arroztasunez 'ezezagunaren begiradaz'	«Karta-emaileak ironikoki begiratu zion, arroztasunez .»	(78)
artegatasun 'urduritasuna, ezinegona'	«Lehen ordutik sentitzen zen estresa, artegatasuna etxandi zahartu hartan.»	(89)
ase 'bete, berdindu'	«Tabernako bezeroek, denak beltzak, hasierako kuriositatea ase ondoren –norzitekeen-zertara-norengana-gizaki-zuri-hura–, berenean jarraitu zuten.»	(46)
aserik 'beteta, berdinduta'	«Gurin errearen usainaz aserik zegoen, arrautzen zirtez nazkaturik eta hirugihar xerrak plastikozkoak balira bezala bihurritzen ziren txapa gainean.»	(154)
ataka 'pasabide estua / larrialdiko egoera'	«Token-a, txanpon berezia, atakako zirrikitian sartu ondoren jendartean nahastu zen.»	(12)
ataka 'estualdia, larrialdiko egoera'	«"Azken garraioa eta libre naiz ataka honetatik. Diruarekin gainera.»	(135)
atergabeko 'etengabekoa, jarraia'	« Atergabeko hitz jarria ile zuriko emakume harena.»	(81)
aurki 'ziurrenik'	«Goiko solairuko maizterrak komuneko urari eman zion eta hormaren barrendik zihoan uharraren burrunba entzun zen, jaki merkeek eragindako gorzaldia eramanez aurki .»	(28)
azeritu 'zorrotza, azeriena modukoa'	«Noizbait, polizia atzetik zebilkion susmoa hartu zuen. Horren jarraipen azeritua , funtzionario metodikoaren modukoa, sentitu zuen kale ertzetan...»	(13)
aztalak jo 'bernak hoztu /belau.-orpo artekoa	«Neguko haize hotzak aztalak jotzen bazituen ere jendea erruz zebilen.»	(72)
balihoa bezala 'joango balitz bezala, j. bailitzan'	«...ezkutuko deman, zein zen irabazle denboraren neurketa esatera balihoa bezala .»	(37)



Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
behatu 'begiratu, so egin, ikusmiratu'	«...beste batzuek kamera-irradi-eta abar dendetako eskaparateak eta prezio beheraldiak behutzen zituzten.»	(72)
bereizi 'banandu'	«Ondoren, bereizi egin ziren eta bakoitza geltoki banatan jarri zen.»	(89)
bertatasuna 'hurbiltasuna, gertutasuna'	«Zure bertatasuna sentitzean zirrara lirikoak jotzen nau. East River ibaiko ihiak hego haizeak orrazten ditu eta zu (...) niregana zatoz beso zabalik...»	(43)
biharamun 'hurrengo eguna'	« Biharamuncan , egunero bezala, lanean ari zen Joseba sukaldean.»	(65)
bizarra egin 'bizarra moztu, afeitatu'	« Bizarra arreta handiz egin zuen. Oiak gorritu arte garbitu zituen hortzak...»	(166)
bulkatu 'bultzatu, bultza egin'	«Kontrako oinaz orpotik bulkatuz atera zituen zapatak.»	(15)
burrunba 'zaratotsa, harrabotsa'	«Goiko solairuko maizterrak komuneko urari eman zion eta hormaren barrendik zihoan uharraren burrunba entzun zen, jaki merkeek eragindako gorotzaldia eramanez aurki.»	(28)
buru-belarri sartu 'gogotsu, konzentratu'	«...»ez duzu deusetan pentsatu beharrik, zure sukalde lanean sar buru-belarri .»	(70)
danda 'kanpaien kolpe soinua'	« <i>Iruñean nago, katedraleko ezكيلen dandek iratzarri naute...</i> »	(75)
deblauki 'bat-batean'	«Catherineren mugimendu erotizataileak deblauki bertan behera geratu ziren...»	(59)
dema 'lehia, norgehiagoka, apustua'	«Txapazko xarlango baten antzera, fokuek eskas samar argitutako trafiko-arrastoak harrapatzeko deman zihoala zirudien.»	(82)
desgaraiz 'une desegokian, desorduan'	«...Josebarengana joaten zen solasera, (...) bere gelan ahalik gutxien egoteko; bakardadea pisugarri baitzitzaien eta loa berandu eta nekez agertzen baitzen, desgaraiz , askotan.»	(16)
desosegu 'ezinegona'	«Nekeak eta desoseguak bulkatu zuten Jean Genet-en ahapaldi hura, oiuhu bakarti hura kartelean itsastera...»	(100)
dindai 'izpia, distira'	«Oraintxe bertan zerua urdindu egin da, eguzki dindaiak agertu dira...»	(43)
egin ahalean 'topean'	«Lehen senda-laguntzak eman ondoren anbulantzian sartu eta, sirena eta argiak egin ahalean , 96. kaleko Metropolitan Ospitalera abiatu ziren.»	(175)
ekidin 'saihestu, itzuri egin, ebitatu'	«Angiek, ia intuizioz, irudimenak sor ziezazkiokeen esanahi elkarketak ekiditeko , soinu-informazio hura blokeatu zuen buruan...»	(28)
eltze 'lapikoa'	«Lepokoa eta gabardina aulki batera bota ondoren txapa elektriko batean kafe- eltzea berotzen jarri zuen.»	(15)
erantzi 'arropa kendu'	«polsa ohepean gorde eta, arropak erantzi gabe, ohe gainean hartu zuen loak.»	(85)
erlastu 'marrantatua, garbia ez dena'	«...bozgorailuek, ingeles ulergaitzez eta soinu lodi eta erlastuen artean, oharrak botatzen zituzten...»	(12)
ernarazi 'piztu, isiotu'	«Eta Catherine, nahiz eta jende askorentzat erakargarria izan, ez zitzaion atsegin, ez zuen bere erotismoa ernarazten .»	(38)
errenkadan 'ilaran, lerroan'	«Txirrira jo nuen, lagunak nire atzetik errenkadan jarri ziren eta hara non...»	(18)
errietan hasi 'agiraka hasi, haserre egin, liskartu'	«—Lasai, Gregory, jarrai zure istorioarekin. Ez dugu orain errietan hasi behar.»	(19)
erroskan 'biribilean'	«Izerdia kopetan, ia automatikoki egiten zituen gosariak, amaigabeko erroskan balebil bezala.»	(35)
erruz 'eurrez, ugari, piloa'	«Neguko haize hotzak aztalak jotzen bazituen ere jendea erruz zebilen.»	(72)
eskaparate 'erakusleioa'	«...beste batzuek kamera-irradi-eta abar dendetako eskaparateak eta prezio beheraldiak behatzen zituzten.»	(72)



espa 'kexa, intzeria'	«...jada joandako bizitzagatik espa apurtxo bat eta etorkizunagatik (...) malenkonía tanta bat sentitzen zituen...»	(17)
etxandi 'eraikin handia'	«Lehen ordutik sentitzen zen estresa, artegatasuna etxandi zahartu hartan.»	(89)
ezin kabitu ahalean 'bete-beterik, mukuru beteta'	« Ezin kabitu ahalean joaten ziren bagoiak.»	(101)
ezkila 'kanpaia'	« <i>Iruñean nago, katedraleko ezkilen dandek iratzarri naute...</i> »	(75)
fardel ederra jaso 'paketea, kolpe handia hartu'	« <i>Bere gustuz sartu zen saltsatan, eta fardel ederra jaso zuen. Besteak bezala ibili balitz!</i> »	(0)
fereka 'laztandu'	«Mehatxuak eta losintxak, hitz gogorak eta besarkadak, " fereka nazazu hemen"...»	(117)
fitsik ere 'ezertxo ere'	«"Nire gurasoek ez dakite fitsik ere baina, ikasiko balute, hori ahalkea! Jainkoak lagun noizbait euskaldun mutil langile bat aurkituko dut...»	(20)
franko 'ugari'	«...gosarietarako gaiak pilatzen ziren: hirugihar-xerra sorta, urdai oso zuri eta haragi gorri franko zurbilekoa; dozenaka arrautza...»	(34)
galda 'garra, izpi oso beroa'	«Thailandiar musikak paretetako kanaberen bizkarra kolpatzen zuen monotoniaz, eta mahaiko kandelaren galdak suge dantza geldian zirudien.»	(57)
galtzarbe 'besapea'	« <i>Egunkaria erosten diot izkinako saltzaileari. Ikustaldi bat eman eta galtzarbean jartzen dut.</i> »	(75)
gerta balekit 'gertatuko balitzait'	«Zerbait gerta balekit eta gau osoan ager ez banendi, goizean lehen orduan poliziari hots egiozu.»	(71)
gider 'asta, oralekua'	«..."nire kafea joan duk", eta giderretik hartzean berotutako eskuak galtzetan igurtziz, ateko sarrailek libratu zituen.»	(16)
girgilo 'okots azpiko tolesa'	«...Anthony oso lodia zegoen eta girgiloak kokotsa ezkututzen zion...»	(66)
goitibeherako 'beherakoa, gorotz biguna edo likidoa'	«Elkarrekin afaltzera joan ziren azken aldian Tom goitibeherako latzez zegoen.»	(45)
gortzaile 'gortzen duena, zaratsua'	«...txanpon makinetan jendeak eulia zirudien, marmar gortzailez makina batetik bestera aldatzen zen...»	(76)
hegatu 'hegaldata, airean mugitu'	«Josebak zigarro bat piztu zuen eta kealdien hegatzean kontzentratu zen.»	(38)
hil baledi 'hilko balitz'	«..."baina Euskal Herrira, etxera, noiz itzuliko ote naiz? Noiz ikusiko ditut berriz Ezkurrako mailoak? Franco hori hil baledi! "»	(141)
hondarrean 'bukaeran, amaieran'	«Poltsikotik billete bat ateraz Gregoryri luzatu zion. Hilabete hondarrean gertatzen zen hori.»	(24)
hondope 'hondoaren azpia'	«Harlem Ibaiaren hondopetik iraganez South Bronx auzoan sartuko ziren.»	(93)
horrenik 'horrela denik, horrelakorik'	«—Zer dela hori? Ez estutu, Joseba, atsegin zatzaizkit. —Ez dirudi horrenik .»	(39)
hots egin 'deitu'	«Zerbait gerta balekit eta gau osoan ager ez banendi, goizean lehen orduan poliziari hots egiozu .»	(71)
hurkotasun 'hurbiltasuna'	«Mahai bakoitzean kandela txiki piztu batek hurkotasun erromantikoa sorrarazten zuen.»	(55)
ihartu 'lehortua, gogor edo zaharkitua geratua'	«...arrotz egiten zitzaizkion Josebari, kortesiazkio usadio ihartuen kera hartzen zien, ilunabarretan batez ere.»	(11)
ihi 'uretako landarea (junco)'	«Zure bertatasuna sentitzean zirrara lirikoak jotzen nau. East River ibaiko ihia hego haizeak orrazten ditu eta zu (...) niregana zatoz beso zabalik...»	(43)
ikustaldi bat eman 'begiratu bat eman, gainbegiratu'	« <i>Egunkaria erosten diot izkinako saltzaileari. Ikustaldi bat eman eta galtzarbean jartzen dut.</i> »	(75)



Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
ikuzgailu 'garbigailua (lavadora)'	« Ikuzgailu asko zeuden ilaran garbitegi publiko hartan.»	(147)
ilaran 'errenkadan'	«Ikuzgailu asko zeuden ilaran garbitegi publiko hartan.»	(147)
ilunabartze 'iluntzea'	«Hotza zen urtarrileko ilunabartze hartan Manhattanen.»	(11)
iratzarri 'esnatu, itzartu'	« <i>Iruñean nago, katedraleko ezkilan dandek iratzarri naute...</i> »	(75)
irutzi 'bateratu, elkartu, estutu'	«...irribarre behartua markatu zitzaion Josebari, poltsa magalean irutzen zuen bitartean.»	(80)
irutzian aritu 'zerbait beste zerbaitea estutzen ibili'	«Catherineren behatzek ere Josebaren soina ferekatzen zuten (...) eta izterrak geldi gabeko estutuan, irutzian ari ziren.»	(60)
jasa 'zaparrada handia'	«Dendaren sarrerako aterpetxoan (...) gizaseme pare bat zegoen zigarroa erretzen, jasaren tanta zorrotzetan begirada galdurik.»	(161)
jetzi 'esnea atera'	« <i>Aitak behiak jetziko ditu eta esne pertza mukururaino beterik igoko ditu eskailerak.</i> »	(73)
kainu 'txorroa'	«...dutxategiko lauzak horiturik eta lababoko kainua ur tanta jarioz...»	(15)
kardaba 'asaldura, ezinegona, ardura'	«Burua kardabaz eta kezkaz beterik zeukan eta pentsamendu bat zebilkion errotarria bezala "ez nuen beste erremediorik etortzea baizik...»	(53)
karkaxa 'eztarririk ateratako ttua'	«Ondoko gelatik zakur-eztulak eta karkaxa botatzearen zaztadak entzun ziren.»	(85)
karraka 'buelbaka dabilen pieza'	«...bost zentaboko txanpona sartu, palankari eragin, karrakaren bira itsuki jarrai...»	(77)
karrika 'kalea'	«110. karrikako geltokira heldu eta andenean aurrera abiatu zen irteerarantz.»	(102)
kasketa sortu 'tema sortu, kasketaldia'	«...Genet-en esaldi hura idatz zezakeen pertsonarekin topatzeko kasketa sortu zitzaidan. Gainera, topaketarako deia han zegoen...»	(152)
katagorri 'katamixerra, urtxintxa'	« Katagorrien atzetik egiten zuten lasterka, nork eskuratuko bat apustuan, baina inoiz ez zuten lortzen...»	(102)
kera 'moldea, itxura'	«...arroztz egiten zitzaizkion Josebari, kortesiazko usadio ihartuen kera hartzen zien, ilunabarretan batez ere.»	(11)
kikara 'katilutxoa'	«—Kafe bat merezi duzu. Deia egiten dudan bitartean presta itzazu bi kikara .»	(109)
kilikatu 'piztu, kitzikatu'	«Angieren usain gozoak ezkutuki kilikatzen zuen Joseba.»	(159)
kirrinka egin 'soinu bizi-desatsegina atera'	«Burdinazko gurpilek kirrink egin zuten eta kolpe zakar batez gelditu ziren bagoiak, zutik zeudenak kordokatuz.»	(100)
koilatu 'izoztu'	«"Hau mixeria. Hotz honekin kanpoan lo egin beharra. Koilatu eginen da".»	(83)
kokildu 'kikildu, beldurdu'	«Ez nau kokilduko , alajaina!»	(65)
kopeta 'bekokia'	«Izardia kopetan , ia automatikoki egiten zituen gosariak, amaigabeko erroskan balebil bezala.»	(35)
kordokan 'koloka'	«...bere burua loaren ilunetik iratzarrien hirira kordokan pasatzen zen bitartean...»	(27)
kordokatu 'mugiarazi, alderoka edo koloka jarri'	«Burdinazko gurpilek kirrink egin zuten eta kolpe zakar batez gelditu ziren bagoiak, zutik zeudenak kordokatuz .»	(100)
koskabiloak 'barrabilak'	«...kolpeak, mehatxuak, "zuk jarri zenuen Txantrean ikurrina lehegailu batekin", berriz kolpeak koskabiloetan ...»	(39)



kukaratxa 'labezomorroa'	«...hainbat langabetu irtenen ziren kalera, espaloi bazterrera, egunezko kukaratxak , azalez ere labezomorro belztuak balira bezala...»	(94)
kuriositate 'jakin-mina, jakingura'	«Tabernako bezeroek, denak beltzak, hasierako kuriositatea ase ondoren –norzitekeen-zertara-norengana-gizaki-zuri-hura–, berenean jarraitu zuten.»	(46)
lanbro 'euri fina, zirimiria'	«Nekaturik zihoan 42. Street-ean zehar, lanbropean , gabardina handi bat soinean eta ingeles estiloko kapela buruan.»	(11)
lauhazkan 'arrapaladan trostan'	«Burua lauhazkan hasi zitzaion, pentsamenduak etorriarekin joaten ziren.»	(38)
lausotu 'ilundu, nahastu, gandutu'	«...monologoaren haria galdu zuten, antzerkilaria lausotu egin zen hauen begietan, inguruak errealtasuna galdu zuen...»	(160)
leihakume	«Panel aglomeratuz egindako ate simple eta dekorazio-komplexurik gabekoaren leihakumetik Josebak ia ezin zituen ikusi bezeroak.»	(34)
lela 'zozoa, zaporerik gabea'	«—Larunbat arratsaldea zen. Eguzki jartze lelaren izpiek Sena ibaia grisatzen zuten.»	(17)
lixiba egin 'arropa garbiketa (colada)'	«...arropa zikinak plastikozko poltsa batean sartu eta garbitegira abiatu zen lixiba egitera .»	(147)
losintxa 'laudorio faltsua'	«Mehatuak eta losintxak , hitz gogorak eta besarkadak, "fereka nazazu hemen"...»	(117)
magal 'altzoa, sabel aldea'	«...irribarre behartua markatu zitzaion Josebari, poltsa magalean iruzten zuen bitartean.»	(80)
mailo 'muinoa'	«... "baina Euskal Herrira, etxera, noiz itzuliko ote naiz? Noiz ikusiko ditut berriz Ezkurrako mailoak ? Franco hori hil baledi!"»	(141)
maizter 'inkilinoa, apopiloa'	«Goiko solairuko maizterrak komuneko urari eman zion eta hormaren barrendik zihoan uharraren burrunba entzun zen, jaki merkeek eragindako gorotzaldia eramanez aurki.»	(28)
makar 'pizta'	«Ohazur soinuak, "bai, banoa", pausoak, sarraila-hotsak, eta Joseba agertu zen begietako makarrak kenduz.»	(92)
marmar 'hizketa isila baina amaigabea'	«...txanpon makinetan jendeak eulia zirudien, marmar gortzailez makina batetik bestera aldatzen zen...»	(76)
merke-zuhur 'kostua aintzat hartuta'	«Sukaldearen eta kafetegiaren beste alderdiak arruntak ziren, merke-zuhur antzean egindakoak...»	(34)
mukuru 'goraino, toperaino'	«Aitak behiak jetziko ditu eta esne pertza mukururaino beterik igoko ditu eskailerak.»	(73)
nabar 'kolore nahasikoa, ajatua'	«...zurezko maleta zaharra soineko hoberenez eta gurasoen ezteietako erretratu nabar batez bete zuen...»	(20)
nabari 'begibistakoa, agerikoa'	«...lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk, zikinune arrez beste batzuk: hotelaren gainbeheraren zantzu nabariak .»	(14)
nahiz 'nahian, guran'	«...hormetara begira zihoan, kartelak begiztatu nahiz .»	(90)
narda 'nazka, higuina'	«...joan egiten ziren, azken etorkinentzako mespretxu edo narda -aztarnak atzean utzita.»	(14)
narritaturik 'eszitaturik'	«—Egia da egun hauetan narritaturik nabilela, baina ez preseski Kellyren kariaz, neure sentimenduen egoeraz baizik.»	(123)
neskaren maitagarria 'zein(en) neska maitagarria'	«Zoragarria izan zen arratsalde hura. Eta bai neskaren maitagarria! »	(21)
ohazur 'ohearen egitura, ohe-zurak'	« Ohazur soinuak, "bai, banoa", pausoak, sarraila-hotsak, eta Joseba agertu zen begietako makarrak kenduz.»	(92)
oia 'hortz-haginen gaineko aldea'	«Bizarra arreta handiz egin zuen. Oiak gorritu arte garbitu zituen hortzak...»	(166)
olde 'aldra, pila handia'	«Jende- oldeen legea zen: etorri berriek, azkenek, beren miseria eta deserritasunaren indar ukiezinarekin bultza egiten zieten aurreko	(14)



oldean 'multzoan eta indarrez'	«Orduak amilka joan ziren, oldean , bat bera ere galduta geldi ez zedin...»	(183)
patrika 'poltsikoa, sakela'	« Patrikatik papertxo atera eta azken aldiz egiaztatu zuen helbidea aurrean zeukan etxearekin...»	(53)
piper egin 'sasieskola egin'	«...bagoiaren beste aldean <i>hip-hop</i> musika eta bizi estiloko mutiko pare bat, eskolan piper egin zutenak, apika...»	(187)
pisu 'iluna, astuna'	«...habeak eta burdinak urdin pisuz pintaturik zeuden...»	(12)
pisugarri 'astuna, eramangaitza, jasangaitza'	«...Josebarengana joaten zen solasera, (...) bere gelan ahalik gutxien egoteko; bakardadea pisugarri baitzitaion eta loa berandu eta nekez agertzen baitzen, desgaraiz, askotan.»	(16)
pitxi, txitxi 'figuratxoa, bitxikeria'	«Apalak eta zorua mila pitxi, txitxi eta potez beterik zeuden <i>Joe's Grozery</i> zikinbildu hartan.»	(95)
preseski 'bereziki, hain zuzen'	«—Egia da egun hauetan narritaturik nabilela, baina ez preseski Kellyren kariaz, neure sentimenduen egoeraz baizik.»	(123)
-ren kariaz '-gatik'	«—Egia da egun hauetan narritaturik nabilela, baina ez preseski Kellyren kariaz , neure sentimenduen egoeraz baizik.»	(123)
sakana 'harana, ibar luzea'	«Manhattango kaleak sakanak ziren etxandien artean...»	(42)
sarda 'bitartea, hasten den lekua'	«Apropos goratu zuen soinekoa izterrean gora, zangoen sarderaino kasik.»	(60)
sega 'kodaina, belarra ebakitzekoa'	«Polizi auto baten argi zaflada urdin eta gorriek iluntasuna ebakitzen zuten eta kasino-jokalaria merke haien buruetan sega modura igarotzen ziren...»	(82)
segailtasun 'edertasuna, fintasuna'	«Jantziak nabarmenago egiten zuen soinaren segailtasuna , eta betazaletako lerro urdin, ongi marraztuek katemearen begi distira irudikarazten zuten.»	(65)
soinean 'aldean'	«Nekaturik zihoan 42. Street-ean zehar, lanbropean, gabardina handi bat soinean eta ingeles estiloko kapela buruan.»	(11)
talaia 'begiralekua'	«Autoaren barrendik talaia egokia zegoen ingurua ikusteko.»	(52)
tejo 'hatsa, kiratsa, sunda'	«...dendako jakien usain desberdinek tejo itsasgarria sarrarazten zuten sudurzuloetatik.»	(95)
tentalari 'tentagarria, deigarria'	«Haiek irribarre tentalariak eskaintzen zizkiguten eta, luze gabe, norberaren aukerak nabarmentzen joan ziren.»	(18)
tiren 'teink, tentsioan'	«Joseba erne jarri zen, gorputza tiren , besoak geldi, eta burua bueltatu gabe...»	(36)
topaketa 'enkontrua, elkartzea'	«...Genet-en esaldi hura idatz zezakeen pertsonarekin topatzeko kasketa sortu zitzaidan. Gainera, topaketarako deia han zegoen...»	(152)
txirikorda 'trentza'	«Emakume lodi batek ilea txirikordetan jarritako alaba eskolara zeraman.»	(29)
tzingada	«...eta uhinik gabeko uretan zebiltzan txalupatxoak, arraunen tzingadak ikuskatzen zituzten.»	(102)
uhar 'erauntsia'	«Goiko solairuko maizterrak komuneko urari eman zion eta hormaren barrendik zihoan uharraren burrunba entzun zen, jaki merkeek eragindako gorotzaldia eramanez aurki.»	(28)
uhin 'olatua'	«...eta uhinik gabeko uretan zebiltzan txalupatxoak, arraunen tzingadak ikuskatzen zituzten.»	(102)
ultzi 'errutina, roiloa, astinaldia'	«...hondakinetera bota eta gosari gehiago prestatzen jarraitu zuen. Eta holakoxe ultzia zuten egunero, hamarrak arte atsedean bat hartu arte.»	(35)
uxatu 'aldendu, urrundu'	«..arnasa luzea hartu zuen, igarotako presaldia, ia egunerokoa bestalde, uxatzeko .»	(30)
xarlango 'erbi-txakurra'	«Txapazko xarlango baten antzera, fokuek eskas samar argitutako trafiko-arrastoak harrapatzeko deman zihoala zirudien.»	(82)



xarmant 'eder-ederra, liluragarria'	«... "Minutu bat, mesedez", irribarre xarmantaz erantzun zion.»	(90)
zaflada 'zaplastekoa, kolpea'	«Polizi auto baten argi zaflada urdin eta gorriek iluntasuna ebakitzen zuten eta kasino-jokalaria merke haien buruetan sega modura igarotzen ziren...»	(82)
zaldizkoak ekarri 'zaparradak, erauntsiak'	«Euria bizkor ari zuen eta haizeak zaldizkoak zekartzan zaldizka.»	(159)
zantzu 'arrastoa'	«...lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk, zikinune arrez beste batzuk: hotelaren gainbeheraren zantzu nabariak.»	(14)
zapela-pasa 'txapela-edo pasatzea dirua batzeko'	«...musikari anbulante batzuek kontzertua eskainiko diete, borondatezko zapela-pasa ugariekin zatikatua.»	(112)
zaplaztatu 'kolpatu, astindu'	«...pertsonek isiltasuna trenen zalapartak zaplaztatu du...»	(58)
zastada 'ttua indarrez botatzea'	«Ondoko gelatik zakur-eztulak eta karkaxa botatzearen zastadak entzun ziren.»	(85)
zikinbildu 'txerrikeria anabasa, nahastea'	«Apalak eta zorua mila pitxi, txitxi eta potez beterik zeuden <i>Joe's Grocery</i> zikinbildu hartan.»	(95)
zinbel 'mugimenduagatik deigarria'	«Ibilera zinbelez gurutzatu zuen kafetegia, zerbitzariei zenbait agindu eman zien...»	(111)
zinbeldu 'deigarri bihurtu'	«Takoidun zapaten gainean zinbeldu egiten zuen soinua. Emekiro laztantzen zituen bularrak eskuekin.»	(55)
zintz egin 'mukiak ateratzeko putz soinua'	«Antioju txiki, borobilen atzetik begiak gorriturik zeuzkan eta muki urak zintz egiteko eskuoihal baten tamainako zapia eraman zuen.»	(45)
zintzarri 'joalea, abereen kanpaitxo'	« Zintzarri hots batek eman zuen igogailuaren etorreraren abisua eta denak isilik sartu ziren, era ordenatuan...»	(31)
zirt 'txinparta'	«Trena heldu zenean zirtak joan ziren bazterretara.»	(162)
zirta 'beroak eragindako zartada'	«Gurin errearen usainaz aserik zegoen, arrautzen zirtaz nazkatutik eta hirugihar xerrak plastikozkoak balira bezala bihurritzen ziren txapa gainean.»	(154)
zirtaka 'txipli-txaplaka, txinpartaka'	«Zartaginean gurina gori-gori zegoen, arrautzak zirtaka ari ziren, laranja uraren tresnak soinu behartuz egiten zuen lan.»	(35)
zurbil 'zuria, kolore argikoa'	«...gosarietarako gaiak pilatzen ziren: hirugihar-xerra sorta, urdai oso zuri eta haragi gorri franko zurbilekoa ; dozenaka arrautza...»	(34)
zuriekiko 'zurikoa'	«Aurrean, leihoari bizkarra emanez, adats zuriekiko gizona paper batzuk irakurtzen ari zen.»	(40)
zurrun 'gogortua, irmoa, tinkoa'	«Poker mahaiak, jokalaria zurrunez inguratuak, iragan ondoren, <i>blackjack</i> jokorako mahaien artean sartu zen.»	(77)
zurrunga 'lotan egiten den soinua'	«Noizbehinka zurrungaren bat eta mugimendu batzuk jarraian.»	(83)
zuzen ezin 'konponezina, bidera ezina'	«Askotan esan zioten ez zela logikoa norberak bere galderei ozenki erantzutea, baina Angieri zuzen ezina gertatzen zitzaion eta bere nortasunaren zatia zela irizten zion.»	(32)